

TOKIKOM

2017ko martxoa | 168. zenbakia

ai kor!

txorierriko aldizkaria

Loiuko belatzak


**Pistako
erreginak**



Udaberria heldu da etorri Deriora!

**Apirilean eta maiatzean,
erosketak, sorpresez beteta!**



-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Marta Hurtado, lanez txundituta
-  **12** Gurean izan da... Ken Zazpi musika taldea
-  **14** Gazteak eta... Andoni Aretxabaleta
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Loiuko aireportuko belatzak
-  **22** Inauteriak, Txorierriin
-  **24** Herri galdeketa, Larrabetzun
-  **26** Korrika 20
-  **28** Emakumearen Eguna
-  **30** Gure musika... Midnight Road taldea
-  **32** Izenik gabeko gaixotasuna
-  **34** Aikorrizketa... Jatabeko abadea...
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarteen
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,
Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina eta Gaizka Eguzkitza

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Einer Larrabeiti Zarate, Ines Serrano, Gaizka Peñafiel, Igor Elordui, Derioko Argazkilaritza Taldea (DAT), Itsasne Zubiri, Idoia Andrés, Oihana Astobieta, Itallen bertso eskola, Ana Apika, Aner Mentxaka eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-
nen edota eritxien erantzukizunik.





INES SERRANO
(Filosofian lizentziaduna)

Badator, bai, gure Korrika maitea, Euskal Herriko hainbat herri zeharkatuko duena, hainbat jende batu, hainbat gogo piztu eta berpiztuko dituen indarra edo sendotasuna, eta esan daiteke, besteak beste, indarra eta sendotasuna direla euskararekin aurrera egiteko ezinbesteko baldintzak, hasieran behintzat. Izan ere, Karmelo Ayestak dioen bezala, ohitura aldaketak eta hobekuntza pertsonal guztiak antzeko prozesuen

bitartez burutu daitezke; kirolari bihurtzeko bidea, erretzeari uztekoa eta euskaldun bilakatzea ez dira hain desberdinak.

Lasterketa luzeetan jabetzen gara prozesu horrezaz. Hasieran gogoz beterik hasten gara entrenatzen gimnasioan, helburua erabat betegarria delakoan, eta ilusio itzelez ekiten diogu bideari. Baina bide hori ez da beti oso eroso, ondoan ditugun bidelagunek ez dutelako askorik animatzen, egun txarretan ere jardun egin behar delako. Orduan gure alde ahulak agertzen dira, eta eguraldi euri-suaren pean gabiltzan bitartean etxeko sofa botatzen dugu faltan, alferkeria goxoan egoteko denbora, eta gure buruari galdetzen diogu ea benetan merezi duen hainbeste ahalegin, ea azken finean behar-beharrezkoa den benetan hartu dugun lan guzti hori.

Baina gero atsedean apur bat hartzen dugu, eta ingurura begiratu, lanari neu-

ria hartzen diogu, bidelagun berriak topatu... Konturatu gabe, disfrutatzen hasten gara ordura arte derrigorrezko ariketa baino ez zen ekimena. Bai, sasoiak gaude jada, ez gara ahalegindu behar erritmoa mantentzeko, mugimendua eta abiadura berez irteten zaizkigu bide leun, harritsu edo aldapak zeharkatzeko gai gara, eta gustora gainera...

Hizkuntzak ikasi, berreskuratu edo lantzeari dagokionez, kirolean ez bezala, ez dago mugarik. Zenbat eta gehiago jakin eta jardun, gero eta hobeto egiten dugu berba, berarekin jolasteko aukera gehiago aurkitzen ditugu; hiztun mota desberdinekin harremanetan, berriz, inoiz baino aberatsagoak gara. Eta horrela izango da beti, adina edozein dela ere. Berbak eta berbetako erabilerak, gorpurtzak ez bezala, infinituak baitira.

Jarrai dezagun, bada, betiereko korrika honetan, inoiz lotu barik, lagunaren arteko lasterketa luze, goxo eta emankorrean.

"Neure kontzientziak pisu handiagoa du mundu guztiaren iritziak baino", aldarrikatu zuen Zizeronek. Iritzia. Zerbaitez edo norbaitez eta, bereziki, gai edo arazo eztabaidagarri batez pentsatzen dena. Batzuek, Zizeronek bezala, ez dute inolako arazorik euren partekatzeke. Beste batzuek, poltsikoan eraman ohi dute iritzia, eta atera ere etxeko giltzak kale erdian ateratzen diren moduan ateratzen dute: zertarako?

Esaten da ezberdin pentsatzea aberasgarria dela, adierazteko askatasuna guztiaren gainetik dagoela eta, noski, nahiz eta besteen uste berekoa ez izan, errespetatu egin behar dela.

Atera giltzak



EINER LARRABEITI ZARATE
(Psikologian graduatua)

Baina egia al da, ala norberarekin bat datozen horiei begi hobeagoekin begiratzen zaie? Izan ere, asko eta asko erosoago sentitzen dira iritzi ezberdinak onartu behar ez badute; ulertzea aditz zailegia omen da, eta, epaitzea eta inposatzea nahiago.

Gauzak hala izanik, filosofo latin-darrenekin bat egin dezagun: sentitu, pentsatu eta esan. Ez zigortu norbere burua gainerakoaren ulermen-gabeziagatik. Azken finean, inor ez bada gure ordezkilko, ez daitezela gure izenean bizi.

Alaia
fruta-denda
Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak
Telleri, 5
48170 Zamudio
94 681 05 85

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Zamudioko radarra lehen emaitzak jasotzen hasi da



Zamudioko Udalak 2016ko abuztuan Eleizaldeko plazan ezarritako radar kutxaren abiadura-neurgailuak lehen fruituak jasotzen ari da. Ezarri zenetik, inolako isunik jarri gabe, autoen abiadura nabarmenki astiroztea lortu du gailuak, Udalaren arabera. Horrela adierazi dute herrian zehar sei hilabeteetan zehar egin diren abiadura neurketek. 2015eko urriaren 8an eta azaroaren 20an bitarteko 45 egu-

netan egindako neurketek adierazi dute 687 ibilgailuk 60 km orduko abiadura gainditu zutela, eta 8.639k 50 km orduko abiadurak gainditu zituztela. "Aurten 18 eguneko neurketa egin da eta hiru ibilgailuk gainditu dute 50 km orduko abiadura", azaldu du Udalak argitaratu berri duen prentsa oharra.

Gailua ezartzearen arrazoia auzotarraren kexak izan direla azaldu du alkateak:

"50 km orduko abiaduran auto-istripua izateak hiltzeko aukera asko ematen du", adierazi du Igotz López Zamudioko alkateak. Hasiera batean sakanguneak ezarri ziren, baina Udalaren arabera ez zen nahikoa izan. Radarra ikusgaitasun murriztuko zonalde batean dagoela adierazi du Igotzek, bizitegi-gunean, eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren arabera, zonalde hauetan, gehieneko abiadura 20 km ordukoa da (seinale urdin batez mugatuak egon ohi dira).

Euskal Herrian, abiadura baxuena

"Radarra jartzearen helburua neurritako abiaduran gidatzearena da, bertatik igaro diren oinezkoen segurtasuna bermatzeko", adierazi du komunikatuak. 20 km orduko abiaduratik gora argazkiak ateratzen dituzten radar gutxi daude estatu mailan: "Ez da hain arraroa: Europen zenbait kasu daude Frantzia eta Alemanian, besteak beste", adierazi du alkateak. Euskal Herrian, oster, bakararra dela adierazi du Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailak.

"Radarra jartzearen ekimena eta isunak ezartzearen erabakia Udalarena izan da. Isun kobratzeak, ordea, Trafiko departamentuaren esku egongo da", adierazi du Lópezek. Argazki makinaren berri izan denetik, ibilgailuen abiadura nabarmenki gutxitzeaz gain, aztoramendua sortu da auzotar askoren artean eta EH Bilduk neurri honen aurkako jarrera adierazi du behin baino gehiagotan, Osoko Bilkuretan.

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

IRATXO
gozotegia

larta personalizatua
trufak
tortak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 3. lonja • Sondika, 48130 • 94 543 89 19

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN
ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOA

bai
euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarariziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

100 lagun, Zamudion, Urruneko Kontroleko Topaketan

100 lagun inguru bildu ziren martxoaren 11an eta 12an, Zamudio Racing Elkartekoek antolatutako egun osoko Urruneko Kontroleko Ibilgailuen Topaketan, Zamudioko kiroldegian eta udal igerilekuan. Bertan, autoez gain, hegazkinak, dronak eta itsasontziak izan ziren, den-denak elektrikoak. Itsasontzien kasuan, bateriez gain, horietako batzuek haizea behar izan zuten mugitzeko.

Lehen aldia da Zamudioko Racing Elkartekoek era honetako topaketa egiten dutena, eta espero baino harrera hobea izan zuen: "Inguruetako herri askotatik etorri zen jendea eta batek baino gehiagok proposamena egin zigun beste herri batzuetan antzeko ekitaldia antolatzeko", adierazi du Arkaitz Hormaetxek, Zamudio Racing Elkarteko kideak. Hurrengo hitzordua urrian izango da, Zamudion egingo den Euskal-Kantabriar Scalextric txapelketako finalean.



Kerman, Ameriketara



Ekaina aldera, Morgako Errebolberrak DiBella Entertainment enpresako Lou DiBella promotorearekin debutatuko du AEBetan: "Lou DiBella gutaz fidatzea sekulakoa da niretzat. Duela urte batzuk imajinaezina zen Estatu Batuetatik Morgako ni bezalako mutil batean fijatzea. Amets bat bizitzen ari naiz", aitortu du Kerman Lejarragak.

"Harro egoteko modukoa da Lou DiBella bezalako promotore batek gure boxealariarengan pentsatzea. Kontratuaren baldintzak ezinhobeak dira", adierazi du boxealariaren entrenatzailea den Txutxi del Valle. Estatus berezia izango du Morgako boxealariak, orain arte egingo dako ibilbidea ikusita: "Ez zait gustatzen

boxealari askorekin sinatzea. Ilusioa ematen didaten boxealarien alde apostu egingen dut soilik", adierazi du New Yorkeko promotoreak. Munduko titulua eskuratzeko pausu egokiak eman nahi ditu DiBellak.

"Estatu Batuetan hasiko da Kerman zortzi edo hamar asaltuetako borroketan hasiko da ameriketako publikoak ezagun dezan. Astiro-astiro hastea nahiago dut: ez litzaidake inportako Lamont Peterson bezalako borrokalariaren aurka aritzea, Welter pisuan kalitate handia dago orain eta. Baina Kermanek duen aurrera egitea zer nolakoa den ikusita, hemendik gutxira geldiezin izango da", adierazi du Del Valle.

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializateak:
Xafra-lanak
Zoruak

944522910 - 865703312 - 652772016

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Airelta doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urte Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Garmendia ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

Txorierriko Bira: 48 km euskararen alde

Txorierriko Birak euskararen aldeko mendi martxa egingo du apirilaren 8an, Berbalagunen eskutik eta Txorierriko Untza Mendi taldea, Gailur, Arroeta eta Sondika Mendian taldeen laguntzarekin. Ibilaldia Baserri Antzokian hasiko da 08:00etan eta toki berean bukatuko da, 19:00ak aldera. Partaideek ibilaldi osoa (48 km) edo zati bat egiteko aukera izango dute, edozein herritan taldean sartzeko aukera izanik. Bidean zehar elikagai-hornikuntza izango da. Hori dela eta, eskolakoek izan ezik (janari propioa darabate), gainontzekoek euro bi ordaindu beharko dute parte hartzeko, ibilaldi hasieran.

Akarlanda-Derio edo Lauro-Sondika etapak umeekin egin ahal izango dira, eta horretarako Txorierriko hainbat herritako gurasoen elkarrekin laguntza izango da. Ibilaldi bukaeran Derioko kiroldegian dutxa hartzeko aukera izango dute eta Baserri Antzokian afaria egiteko aukera izango da 21:00etan, 15 euroren truke.

Ekitaldian parte hartzeko izena eman beharko da apirilaren 4a baino lehen.

Izena emateko:

635 753 595

txorierrri.berbalaguna@gmail.com

Jarrai gaitzazu sareetan!

Webgune berria estreinatu genuenetik, AIKORI-ek hainbat aldaketa izan ditu sareetan. Guztiz berriztatuta gara, eta pista ez galtzea eskatzen dizuegu erredakaziotik. Facebook eta Twitter kontuez gain, Instagram eta Youtubeko kanalak sortu ditugu, argazkiak eta bideoetarako. Horra hor gure azterna jarraitzeko zenbait sare sozialen helbideak:

FACEBOOK

facebook.com/aikoralaldizkaria

TWITTER

twitter.com/aikortxorierrri

INSTAGRAM

aikor.aldizkaria

YOUTUBE

Aikor! Txorierriko Aldizkaria

Zabaldu hitza!

Sondikak webgunea estreinatu du

Sondikako Udalak zenbait aldaketa ezarri ditu webgunean eta plataforma bi sortu ditu BiscayTIK fundazioaren eskutik: sondika.net domeinutik sondika.eus-era igaro da, eta bertan hainbat aldaketa egin ditu edukien aldetik: irudi aldaketa, edukia antolatzea eta *Sondika Zabaltzen* izeneko plataforma berria. Azken horrek mobilerako app-a dauka. *Sondika Zabaltzen*ek udalerriko informazio eguneratua dauka, eta horrez gain herritarrek mobilean abisua jasotzeko aukera dute.



hotela
jaketxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO
LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

Inaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

Magalarte
Txakolina

ARETXABALETA HERRIA ETA BIZKAIA

75 cl.
Bizkaiko Txakolina 10,75 % vol.
Denominación de Origen

600 pertsonak omendu dituzte Kepa eta Arene

La 600 pertsonak hartu zuten Derio, martxoaren 5ean Gure Señeak elkarteak antolatutako Kepa eta Areneri egindako VI. omenaldian. Ekitaldian ibilaldi bi antolatu ziren: lehenengoa familarterko martxa izan zen (1,4 km-koa, Derioko erdigunetik); besteak, 8 km-ko lasterketa. Eguerdi aldera, haurrentzako puzgarriak eta tailerrak prestatu ziren eta Xaiborren animazioa izan zen. "Egun zoragarria izan genuen eta ekitaldiak harrera izugarria izan du: jendez bete genuen Derio", adierazi dute Gure Señeak elkarteak. Ekitaldia Gaixotasun Arraroen astean egin zen.

Enplegua sustatuko da Txorierrin

Txorierriko Mankomunitateak, Berriz Enpresak eta Bilboko Merkataritza Ganberak enplegua sustatzeko hitzarmena sinatu dute. Hori komertzioa eta ostalaritzaren inguruko enpresei, baita martxan dabilen enpresak erosteko asmoa duten ekintzaileei ere badago zuzenduta. Mankomunitateak laguntza eskainiko du ideia-aren bidegarritasun prozesuan, negozio-planaren sorkuntzan eta dirulaguntzen sarbide esparruetan.

El Gran Wyoming eta Imelda May, MLFeko kontzertu berrien artean

BBK Music Legends Festivalak Gov't Mule, El Gran Wyoming & Los Insolventes, Ruper Ordorika, Rubia, Imelda May eta The Steepwater Band taldeen kontzertuak baieztatu ditu ekainaren 2 eta 3rako. Hilaren 2an Van Morrison, Georgie Fame eta Ruper Ordorika izango ditugu Sondikako Ola zentroan. Hilaren 3an, Alpha Blondy & The Solar System, Gov't Mule, El Gran Wyoming & Los Insolventes eta The Steepwater Band eta Mud Candies arituko dira.

José Miguel Monzónek (El Gran Wyoming) Miguel Ángel Arizak, José Alberto Solísek, Luís de Diegok eta Manolo Villaltak osatzen dute Los Insolventes taldea. Talde honek energia eta giroz beteriko ikuskizuna eskaintzen du eta rockaren garai askotako klasikoak berreskuratzen ditu: Chuck Berry, The Beatles, The Who, Frank Zappa, Siniestro Total, Leño, Loud Reed... etab. Taldea 2009an jaio zen taldekideek gustuko zituzten abestiak eszenatoki gainean jotzeko asmoz.

a: elnortedecastilla.es



TABERNA GAZTEDEI
Eguneko menuak
Ospakizunak
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Enaitz
TABERNA
Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak
94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

BOLALEKU
JATETXEA
10. UPTERREDA
Garaioltza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantzu Facebooken
• Hainbat menu
• Karta
• Ospakizunak
• BOLAPARK

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 - LEZAMA • T: 94 455 65 46

48196 LEZAMA Baitako Garaioltza auzoa, 36
S.T. LEGU
BERRITASUNEN DTE BAZO-LENDIA
F: 94 455 64 12 T: 94 455 61 98

yedra floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Imelday Mayk *Life, Love, Flesh, Blood* azken diskoa aurkeztuko du jaialdian, azken lanetik hiru urte pasatu direlarik. Erresuma Batuko Evening Standardean lan berri honetan "bihotza eta arima isuri duela" adierazi dute.

Disko honek Jeff Beck-en kola-borazioa dauka gitarran eta Jools Hollandena, pianoan. Bi horiez gain Marc Ribot gitar jolea (Toma Waits, Elvis Costello), Jay Bellerose bateria (Elton John / Leon Russel, Ray La-montagne), eta Zach Dawes baxu jolea (The Last Shadow Puppets, Mini Mansions) aritu dira elkar-lanean. "Terapia da, edonork irakurtzen duen egunerokoa bezalakoa", adierazi du Mayk. Musikariak 50. hamarkadako soul dramatikotik alde sensualerainoko kontzertua eskainiko du Olako jaialdian.

The Steepwater Bandek hamar-kada bi daramatza kontzertutan eta hasierako Delta Bluesetik American Muic-era pasatu da psikodeliatik igaroz. Talde honek Gov't Mule, Buddy Guy, Wilco, Taj Mahal, ZZ Top, North Mississippi All Stars, Leon Russel eta Drive-By Truckers taldeekin batera jo du. Bai El Gran Wyomin & Los Insolventes, bai The Steepwater Band taldeek ekainaren 3an izango dira Olako zentroan.

Euskal Herriko taldeen artean Rupert Ordorika, Rubia eta Mud Candles taldeak arituko dira.

Erandiok eta Loiuk Sondika-Lutxana tren linea mantendu nahi dute



Erandioko EH Bilduk Sondika-Lutxana tren linea mantentzeko proposamena egin zuen otsailaren 23an eta Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkariak aho batez onartu zuten. Hori dela eta, Udalak eskakizuna egin dio Euskotreni mugikortasun plana egitea proposamena martxan jarri ahal izateko.

Metroko 3. linea dela eta, 2015eko ekainaren 1ean Sondika Lutxanarekin konektatzen duen behin-behineko linea ezarri zuen Euskotrenek (Sangroizen garelaku batekin), Bilboko Alde Zaharreko geltoki intermodalaren obrak zirela eta itxita zegoelako. Linea hau 2017ko apirilaren hasieran kentzeko asmoa dago,

eta Erandioko Udala ez dator bat erabakiarekin: "Nahiz eta bidaiarientzat zerbitzua kentzeko asmoa egon, Euskotrenek Lutxanan duen trenen gordelekurako hara eta honakoak egiteko erabiliko du", azaldu du Udalak. "Kontuan hartu behar da gaur egungo linea bidaiarien garraioko guztiz egokituta dagoela; beraz, bidaiarien zerbitzua mantentzeak ez lioke inolako gastu erantsirik ekarriko Euskotreni", zehaztu du Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkariak sinaturiko akordioak.

Loiu ere egitasmo honetara gehitu da, eta martxoaren 6ko Osoko Bilkuran Euskotreni egiten zaion bideragarritasun egitasmoaren proposamena onartu zen alderdi guztien oniritziarekin: "Linea mozten bada eta Lezama-Zazpi kaleak antzinako lineara itzultzen bagara Txorierrirekiko konexioa zakartuko da", azaldu du Loiuko alkateak, Josu Andoni Begoñak.

Eskumaldea eta industrialguneak

"Aintzat hartu behar da zerbitzu hau mantentzeak Txorierriko erabiltzaileei erabat erraztuko liekeela Eskumaldera zuzenean garraio publikoaren bidez heltzea, baita osasun-zentroetara -Getxoko anbulatorioak eta Urdulizko ospitalea- joatea ere. Era berean, kontuan hartu behar da gaur egungo zerbitzuak, Sangroizko garelakuekin inguru horretako industrietan lan egiten duten langile askorentzat aukera ezinhobea eskaintzen diela" azaldu du Erandioko Udalaren idatzia.



EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria
9€


Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55



GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51



Sabino Arana 1-3. SONDIKA



LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA



Mungialde etorbidea, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai lezaguzu 

Juan Ignacio Pérez errektore ohiak hasiera emango dio BANZientzia proiektuari

a: wikipedia

Baserri Antzokia 2016ko urrian ireki zen. Harrezkero, batez ere musika kontzertuak antolatu dira bertan, baina martxotik aurrera BANZientzia proiektua ere hartuko du. Horrek gaur eguneko ikerkuntza jarduerak eskaintzen dizkigun emaitzak modu ulergarrian gizarteratzea eta ikerlari ez diren pertsona arruntei, ume, gazte zein helduei, helaraztea ditu helburu. Horretarako, ikerlari adituek azken emaitza zientifikoak solasaldi formatuan azalduko dituzte. Juan Ignacio Pérez Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) errektore ohiak BanZientiaren lehenengo hitzaldia eskainiko du martxoaren 27an. Berbaldia, *Korrika egiteko jaioak* izenburupean, Korrikaren 20. edizioaren haritik antolatu da.

“Zientzia zentzu zabalean jorratu nahi dugu, hau da, natur zientziak ez ezik, baita gizarte zientziak ere. Gure ustez, askotan zientzia ez da jendearengana heltzen, eta beharizan hori betetzearren sortu dugu BANZientzia. Ildo horretan, adin guztietako lagunak erakartzeko asmoa dugu, 14-15 urtetik gorakoak. Espero dugu gaiak interesgarri suertatzea, txorierriarrak edota Txorierri lan egiten duten lagunak erakartzeko”, esan dute antolatzaileek.

**BANZientziak
ikerkuntza zientifikoaren
emaitzak modu
ulergarrian
gizarteratzea du helburu**



Hitzaldiak hilean behin, hilaren azken astelehenean antolatuko dira, 18:00etan. Bakoitzak 60 minutuko iraupena izango du; hizlariak 45 minutuko berbaldia eskaini ondoren, entzuleek galderak egiteko aukera izango dute. Fundazioko lagunek konpromiso bi hartu dituzte: batetik, hitzaldien gutxienez erdia izango dira euskaraz, jakinik euskaraz dakiten adituak aurkitzea ez dela erraza izaten; eta bestetik, hizlariaren erdia emakumeak izango dira, berdintasunaren konpromisoari ere helduz.

Antolatzaileek EHUko “Kultura Zientifikoa” Katedraren laguntza izango dute, batez ere gaiak, hizlariak eta kultur sarea osatzen duten pertsona eta taldeekin harremanetan jartzeko. Era berean, euren esperientzian oinarrituta, Ondarroako “Zientiaren Giltzak” elkartearen aholkularitza laguntza ere izango dute. Etorkizunera begira, katedrak zein Ondarroako

taldekideek horrela proposatuta, antzeko egitasmoak antolatzen dituzten beste talde batzuekin batera “Zientzia dibulgatzeko” sare bat eratzeke eta bertan parte hartzeko konpromisoa ere hartuko du Baserri Antzokiak.

Juan Ignacio Pérez

Pérez (Salamanca, 1960) Biologian doktorea eta Fisiologian katedraduna da eta, 2004tik 2009ra bitartean, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea izana da. Aurretik, euskara errektoreordea ere izan zen, Pello Salaburu errektore zela. Juan Ignacio Pérez Kultura Zientifikoa katedraren arduraduna da, eta horretan zientzia gizarteratzeko lau blog sortu dituzte (Zientzia Kaiera, Cuaderno de Cultura Científica, Mujeres con ciencia eta Mapping Ignorance) 2010etik. Ikerkuntzari dagokionez, itsas animalien fisiologian garatu du bere ikerketa jarduna.

HAUR-MODA
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kirmasajak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txanem etorbidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txanem etorbidea, 9-4
413.3. bildegia
48180 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 98
a.amondarain@euskalnet.net



Marta Hurtado Escudero | Lanez txundituta

Lanetik heldu da Marta. Valentziarra izan arren, aitarentzat txofer lanak egitera heldu zen Bilbora 2014an. Hiruzpalau hilabetetan aita lanik gabe geratu eta Valentziara bueltatu behar izan zen. Marta ez, ordea. Harrezgeroztik janari arineko jatetxean, supermerkatuan, azafata eta komertzial lanetan aritu da 24 urteko gaztea. Berez haur-hezkuntza eta aisialdiko monitore ikasketak ditu eta gaur egun poz-pozik bizi da Derion, Bilboko ume bat zaintzen.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Valentzia aldetik
Euskal Herrirantz
dator lanpostu duin
baten esperantza.
Argazkiak ez deko
(ta hau ez da txantxa!)
Edvard Munch-en Oihua
koadroaren antza?

Itallen Bertso Eskola

en✓iser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio

TEL. 94 424 38 34

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA



Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

"Gaur eguneko sorkuntza estetikan

EÑAUT ELORRIETA | Ken Zazpi taldeko abeslaria

Gernikako taldearen bira bukatzen ari da, *Phoenicoperus* azken diskoarekin. Sondikako inauterietan eskaini zuten eta jende mordoak erakarri zuen. Azken diskoko abestiak eta garai guztietakoak entzun ahal izan ziren bertan. Karpa erraldoia adin askotako jendez bete zen ia ordu biko zuzeneko entzuteko, eta Ken Zazpi ez zuen hutsik egin. Hala ere, abeslariak aipatu du gaur eguneko musikak ez diola behar besteko garrantzirik ematen kantuari, estetikari baizik.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Zelan dabil taldea?

Ondo. Urtebete daramagu biran. 40 kontzertu egin behar genituen eta 43 daramatzagu. Kontzertu potenteak izan dira, eta poz-pozik gaude. Momentu honetan hurrengo saioa prestatzen ari gara eta kontzertu data berriak irteten doaz.

Zelako garapena izan du Ken Zazpi hasi zinenetik gaur egun arte?

Lehen diskan ez geneukan argi zer egin nahi genuen, baina sorkuntza aldetik abestiak oso freskuak ziren. Rockarekin jolasean ibili ginen. Bigarren diskoan, *Bidean*-en (2003), kantu gogorrenak dauka *Haizea* eta *Ilargiarekin* batera. Kontras-

terik altuena duen diskoa da. Bigarren diskotik aurrera atzean utzi genituen soinu gogorrak eta beste mundu baten esplorazioan murgildu ginen. Hirugarrena, *Gelditu Denbora* (2005), akustikoa izan zen eta beste bide batzuetatik esperimentatu genuen. Ondoren *Argiak* (2007) heldu zen, nire ustez diskorik definituena, Rafa Sardinarekin Los Angelesen grabatutakoa. Tendentzia rockeroak, pope-roak... nahastu genituen bertan. Horren jarraipena izan zen *Ortizemugak Begietan* (2010).

Inflexio puntua izan zen disko hori

Bide horrek eman behar ziguna agortu genuen. Ken Zazpi diskorik diskora erronkak markatu behar ditu, eboluzio-

natzen ari garela sentitu behar dugulako. Momentu hartan Orkestra Sinfonikoa-rekin grabatu genuen eta hausnarketara eramán gintuen. Bideak agortu genituen eta horren ostean krisia heldu zen. Krisiak beharrezkoak dira aurrera egiteko, edozein harremanetan bezala.

Orduan *Phoenicoperus* heldu zen.

Ilusioa berpiztu zaigu disko berri honekin. *Phoenicoperus*-a errautsetatik altxatzen den Fenix Hegaztia da, taldeak nolabait hori bera bizi izan duelako. Motibatuta gabiltza eta erreperitorioa berritzen ari gara. Taldea osasuntsu dabil krisia gaingitu genuenetik.

Zeintzuk osagai ditu azken disko honek?



galtzen da"

*"Krisiak beharrezkoak
dira aurrera
egiteko, edozein
harremanetan bezala"*

*"Ilargia besteko kantu
bat konposatzea
planteatuko banu
orain, ziur nago
ez nukeela lortuko"*

Elektronikoagoa eta organikoagoa da. Esperimentaigoa da, eta ez gara kantu errazara joan. Edizio perfektuaren bila joan beharrean; inperfekzioa eta soinu zikina bilatu nahi izan dugu.

Maniarik baduzue edozein kontzertu hasi baino lehen?

Denok elkarrekin egoteko momentua bilatzen dugu. Talde sententzio hori bizi, hitz egin, elkarren artean ukitu...

Ilargia. Eztanda izugarria izan zen, da eta izango da. Zergatik?

(Barreak). Ez dakit. Inork ez daki. Ilargia besteko kantu bat konposatzea planteatuko banu orain, ziur nago ez nukeela lortuko. Ez dago formularik, zorionez. Ez da egin dudak kanturik onena, baina egia da jendeak oso maite duela eta ate pilo bat ireki dizkigula.

Nola dago musikaren egoera Euskal Herrian?

Garaiak aldatzen ari dira. Aukera zabalak daude duela urte batzuekin alderatuta. Internetek gure bizitzak aldatu dituen bezala, musikarekin antzekoa gertatzen



da: internetek informazio asko eskaintzen du, baina kontua informazio hori ulertzea eta aukeratzen jakitea da. Euskal Herrian askotariko estiloetako proiektu interesgarriak egiten dira. Gu hasi ginenean disketxeak oso potenteak ziren, eta diskoak eurek argitaratzen zituzten. Gaur auto-ekoizpena da nagusi, taldeek internet erabiltzen dute bere bidea jorratzeko...

Garai batean baino gauza interesgarriagoak egiten dira?

Zalantzak dauzkatz. 70. hamarkadako musika entzuten ari naiz egun hauetan. Bidean zeozer galdu dugula uste dut. Garai hartako kantuak, bere sinpletasune-

an oso organikoak ziren. Kantuek ez zuten gaurkoek erabiltzen dituzten parafernaliarik. Gaur eguneko sorkuntza estetikan galtzen da: baliabide pilo bat daude esku-
ra, baina egiten den horri arima falta zaio, eta erakuslehoan geratzen gara, azalean. Kantuaren esentziari baino, azalari ematen diogu eta denok galdu gara pixka bat. Niri kantua gustatzen zait.

Ametsik?

Amets asko bete dituen taldea gara. Ezer eskatzekotan, pausu berriak emateko aukerak izaten jarraitzea eta ondo aprobetxatzea. Azken batean, bide honetan jarraitzea, bizirik jarraitzea da.

HARAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Gutxi-ikusiak, orokurren
Asanbeko konpainiak
Mantentze gutxi-ikusiak
Bulegoak eta lokalkak
Osoa amaierako garbiketak
Bateratutako
Zabon bilaka

Besaide Plaza, 1 - B^a Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Mahatsondo bateko mahatsa

ANDONI ARETXABALETA | txakolingilea

Egur bateko ezpalak dira arebatxaletatarrak. Edo, hobeto esanda, mahatsondo bateko mahatsak. Izan be, Lezamako familia horrek 100 urte daroaz baserritik bizi-modua ataraten, eta batez be txakolina egiten. Andonik, azken belaunaldiko ordezkariak, arbasoen pausoei jarraituko deutse.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Azken urteotan, krisialdia dala-eta, gazte askok baserrian bilatu dabe bizi-modua. Baina zure familia betidanik nekazaritzatik bizi danean, baserria etxea izateaz gain, ogibidea be bada. Eta ziur asko hori da Andoni Aretxabaleta lezamarrari gertatu jakona. Familia ezaguna da gure artean Magalarte txakolina egiteagaitik eta gure 25 urteko gaztea be murgildu da senideen negozioan. Baina Andonirentzat txakolina ez da bakarrik bizi-modua, pasinoa baino, eta hori bera adierazoten dau beragaz berba egitean. "Txakolina egitea izugarri gustatzen jat: ez da inoz amaitzen, eten barik hobetu behar da eta besteen kontra zein zure buruaren kontra zagoz lehian. Lana gogorra izan arren, egunak konturau barik joan egiten jatatz. Gustura nagoan seinalea izango da (kar, kar)".

"Errioxan izugarrizko pasinoa adierazoten deutsie ardauari eta horren kutsatu egin ninduen ni"

"Bosgarren belaunaldiko txakolingilea naz eta horrek harrotasuna ekarten deust"

Beharbada betidanik jakin izan dau, baina Andonik denporaren poderioz argi baino argiago euki dau txakolina egin gura ebala. "18 urte bete nebazanean, argi neban ingeniartza ikasi gura nebala, eta azkenean, Errioxara joan nintzan, nekazaritza-ingeniartza ikastera. Laugarren mailan espezializazioa egin behar da eta nik enologia aukeratu neban. Errioxan izugarrizko pasinoa adierazoten deutsie ardauari, zelan ez, eta horrek kutsatu egin ninduen ni".

Aita, Iñaki, be beti izan da oso garrantzitsua Andonirentzat. "Aita erreferente bat da, baina amak eta arrebak be izugarrizko babesa emon deuskue. Aitagaz lan egitea oso mesedegarria da biontzat, osagarriak garalako. Ni bere alboan nabil ikasten eta, bide batez, ardura batzuk arindu deusadaz. Azken baten, sudur bakar batek sudur bik baino akats gitxiago topatzen dauz. Eta eztabadaidak euki arren, jakin badakigu hika-mika guztien ganetik produktua bera dagoala, hau da, kalidadeko txakolina ataratzea".

Bosgarren belaunaldikoa

Aitak eta semeak alkar akuilatzen dabe beharrean. "Bosgarren belaunaldiko txakolingilea naz eta horrek harrotasuna ekarten deust, nire atzetik izugarrizko ondarea dagoalako: Nicolas hasi zan; Gabriele, aitaren aititek, jarraitu eban; ondoren, aititak Bialtxa Bizkaiko Txakolingileen alkarrearen sortzaileetako bat izan



zan; eta azkenean, aitzak eta osabak indar-barritu eben txakolina ekoiztea, batez be azken 10 urteotan”.

Unibersidadean egoala, Andonik suhiltzailea izateko oposaketak ibili zan prestatzen, baina azkenean txakolinaren aldeko apustua egin eban. “Oso zirrarragarria da ardaua ekoiztea. Arbasoek txakolina ekoizten eben eta gaur egun, Euskal Herrian zehar, baita ehundaka lagunek be. Hondarrabi zuri barietatea desbardin egiten gaitu eta ganera, gero eta lur eremu gehiagotan egiten da txakolina. Gure ardaua bizirik dago, eta gu guztiz murgilduta gagoz bertan”.

Eurena familiako enpresa danez, Andonik danetarik egin behar dau. “Garairen arabera betebeharrak bat edo beste bat dago. Gaur, esate baterako, ongarrira bota dot. Lan polita da egunero gauza desbardinak egiten dozuzalako”. Andonik egunerokotasunari ez eze etorkizunari be begiratzen deutso. “Gauza barriak egin gura doguz, ospe handiagoa lortzeko. Ganera, txakolin gehiago saldu behar dogu kanpoan, baina, horretarako, egileok alkarregaz joan behar gara”.

leup!



Andonik eta aitzak hiru txakolin merkaturatzen dabez. Azkena, *leup!*, martxoan aurkeztu eben Baserri Antzokian. “Eskerrak emon gura deusaguz aurkezpenera joan ziran guztiei. Jenteari txakolina gustau jakon eta jai handia egin genduan Taberna Ibiltaria taldeagaz batera. Baserri Antzokia be oso leku aproposa da eta dana borobil urten zan”, esan deusku Andonik.

Egileen berbetan, *leup!* gorputz handiko ardaua da, garraztasun atsegina eta zapore gozoa dauzana. “Txakolin berezia da, aukerakoa. Produktua modernoa da, batez be gazteak erakarteko. Izena aitzak aukeratu eban eta, gure ustez, oso aproposa da, txakolinaren ezaugarriak oso ondo islatzen dauzalako: hemengoa, alaia, jaiari lotuta, lagunakaz konpartitzeko modukoa...”. *leup!* txakolina Magalartekoen produktu barria da, baina, Andoniren berbetan, ez da “azkena” izango.





ZAMUDIO



18

etxebizitza kooperatiban kostu-prezioan
2, 3 eta 4 logelakoak, garajea, trastelekua eta hornitutako sukalde barne.

Duplexak eta atikoak terraza zabalekin.

184.500
€-tik hasita



26

udal etxebizitza tasatuak kooperatiban kostu-prezioan
2 eta 3 logelakoak, garajea eta trastelekua barne.

Atikoak terraza zabalekin.

152.500
€-tik hasita

GESTIOA:




INFORMAZIOA ETA SALMENTA:



656 78 12 41

arteagabizigunea.com

FINANTZIAZIOA:



Etxeko olioa jasotzeko konpromisoa

Etxean, sei-zazpi litro landare-olio erabiltzen ditu pertsona bakoitzak urtean. Olio-hondakinak saneamendu-sarera isurtzen badira, zailagoa eta garestiagoa da hondakin-ura araztea. Olio behar bezala bereizten bada, hondakinen tratamenduaren faktura merkatzen da, eta biodiesel gisa ere berrerabil daiteke, esate baterako. Hori errazteko, Txorierriko Mankomunitateko udalek plastikozko poto batzuk jarriko dituzte herritarren eskura, litro biko edukierakoak eta eskulekuekin.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak etxeko olio jaso eta bererabiltzearen aldeko apustua egin du. Horretarako, udalerrietan 30 edukiontzi berezi daude erabiltzeko olioak uzteko, betiere plastikozko botiletan. Edukiontzietako batzuk mugikortasun murriztuko pertsonentzat gaituta daude. Bilketa errazteko, udalek litro biko edukiera eta heldulekuak dituzten plastikozko potoak jarriko dituzte herritarren eskura, izakinak amaitu arte, etxeko olio bertan gorde dezaten, gero birziklatzeko. Erraza da horiek erabiltzea: nahikoa da, hotsa dagoenean, olio bahetzea eta plastikozko edozein botiletan isurtzea. Botila itxitakoan, edukiontziotan utz daiteke.

Herritarrek olio batzeko konpromisoa hartu behar dute. Etxean sortzen diren hondakin guztien artean, olioak berebiziko garrantzia du: batetik, etxeetan ohiko hondakina delako. Izan ere, pertsona bakoitzak erabiltzeko landare-olioaren sei-zazpi litro sortzen ditu urtean. Eta bestetik, olioak kutsatzeko ahalmen handia duelako. Etxean erabiltzen dugun olio saneamendu-sarera isurtzen bada, litro bakar batek 40.000 litro ur kutsa ditzake; hau da, pertsona batek bere etxean urtebetea kontsumitzen duena bezainbeste. Adibide bat jartzearren, frijitzearen ondorioz, landare-olio erabiliak aldagata eta alterazio kimikoak ditu. Beraz, haren karga kutsatzailea hondakin-urena baino 5.000 bider handiagoa da, eta haren arazketa, 700 bider ga-

Olio batzeko, udalek litro biko edukiera eta heldulekuak dituzten potoak jarriko dituzte herritarren eskura





Birziklatu olio!

Apiriletik aurrera eta izakinak amaitu arte, hemen eskura ditzakezu olio-hondakinak biltegitratzeko potokak:

DERIO: Kultur Birikan.

LARRABETZU: Liburutegian.

LEZAMA: Udaletxean.

LOIU: Udaletxean.

SONDIKA: Liburutegian.

ZAMUDIO: Udaletxean.

restiagoa. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ikerketa batek 0,46 euroan zenbatetsi zuen erabilitako landare-olio litro bat araztearen kostua.

Baina beste arazo batzuk ere dakartza. Adibidez, karraskarien elikagai bihurtzen da, eta horrenbestez, halako animaliak ugaltzeko bidea ematen du. Olio eta koipeak uretan askatzen badira, zaildu egiten dira aireztapena eta fotosintesia –izan ere, eguzki-erradiazioa xurgatzen dute–; beraz, baita urazaleko oxigenazioa ere, eta horrek berez garbitzeko ahalmena mugatzen du. Horrez gain, ur kantitate handia behar da hura tratatzeko.

Biodiesela

Ondorio kutsagarri eta ekonomikoez aparte, olioak komunitetik edo harraskatik behera botatzen bada, beste modu batzuetan berrerabiltzeko eraldatu daitekeen material bat ari gara alferrik galtzen. Batzuek xaboi eta kandelak egiteko erabiltzen dute. Txorierriko Mankomunitateak, aldiz, biodiesela egitera bideratzen du bildutako olioak. Erregai horrek ez du suferik bere osan; beraz, ez du “euri azidoa” eragiten duen SO₂-rik sortzen motorretako ihes-hodietako gasetan. Gainera, gasolioaren aldean karbono-eduki txikiagoa du bere osan; hortaz, errektuntzan karbono-oxidoen isurketak ere murrizten dira.

“Erabili eta botatzearen” kultura aldatzea eta baliabideak hobeto erabiltzea guztion lana da. Harekin bat egiteko, Mankomunitatearen webgunean aurki daitezke olioak birziklatzeko edukiontzien kokalekuak buruzko informazio guztia, baita hondakin mota bakoitzerako edukiontzi bereziei eta horiek erabiltzeko moduari buruzkoa ere.

www.e-txorierri.com

Zainduz programa, martxan

Apirilean zehar, jarduera eta zerbitzu jakin batzuen bidez, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Zainduz programa jarriko du martxan. Programa horren bitartez, etxean arreta eta laguntza eman nahi zaizkie mendekotasun-egoeran dauden adinekoei eta horien senide eta zaintzaileei, zainketa afektiboa eta hurbila

izan dezaten eta pertsona haiek etxean jarraitu eta bizitza-kalitatea hobetzeko aukera izan dezaten.

Programaren xehetasunak argitzeko, Mankomunitateak zenbait hitzaldi antolatu ditu herriz herri.

Informazio gehiago:
94 643 01 74 (Nerea)



Berdintasunaren aldeko tailerrak, irakasleentzat

Berdintasunean aurrerapausoak emateko, hezkuntza da oinarriarik garrantzitsua. Helburu horren barruan, funtsezkoa da eskolan hezikidetzaren lantzea, irakasleei prestakuntza emanez. Hala, Zamudioko eskolan sei orduko tailer bat jarri dute martxan. Guztira 28 irakaslek hartu dute parte bertan, 25 emakumezko eta hiru gizonezko. Maiatzean berriz egingo da ekimena, Lezaman, non tailer bera ezarriko baita, eta harrerari eta parte-harteari begira arrakasta berbera izatea espero da.

Tailerrean landutako edukiek barne hartu dute nortasunaren eraikun-

tzako eta afektuzko harremanetako mito, estereotipo eta uste faltsuei buruzko kontzientzia hartzea. Horrez gain, identifikatu da zer egoeratan sartzen diren, “isilka”, estereotipoak eta desberdinkeriak ikastetxean eta gelan, eta hezikidetzako zer jardunbide dagoen egoera horiei erantzuteko.

Tailerrean parte hartu dutenek oso balorazio ona eman diote jarduerari. Berdintasuneko eta bereizkeriarik gabeko balioak helarazteko ekintzak bultzatzeko aukera emateaz gain, eskolako jokabide eta jarrera sexistak nahiz bortitzen aurreko zero tolerantzia ere indartuko du jarduerak.

Hegazkinen zaindariak

Aireratu ahal izateko konprobazio mekaniko ugari egin behar ditu hegazkin batek. Horiek guztiak egin baino lehen, bidaiari gehienek ezagutzen ez diren bestelako frogantzak egiten dira. Garrantzitsuenen artean, belatzen hegaldiak daude. Aireratze-pista animaliez garbi mantentzen arduratzen diren ezkutuko heroiak dira. Euren lana gutxi batzuek ezagutzen badute ere, euren onespenik gabe, hegazkinak ezin dira aireratu.



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Txorien herrian, txoriek agintzen dute, aireportuan behintzat. "Harana iza-nik, hegazti askoren igarobidea da. Bertatik 100 espezie baino gehiago igarotzen dira urtero, eta horiez gain, beti dau-de hegazti saldoetatik despistatzen diren antzarrak, kaioak, usoak eta bestelakoak". Fernando Pinto Velasco jubilatzeaz dago. Hegazkin komertzialen artean jaso gaitu irribarretsu, txaleko islatzaile laranja batekin eta lepotik prismatiko batzuk zintzilik dituela, Loiuko aireportuko tripetan. Auto batean sartu eta pistari bira eman diogu Loiuko aldetik. 37 urte daramatza Fernandok AENAn, eta 35 Loiuko aireportuan ingurumen-teknikari. Gauza asko ikusi ditu gizon honek.

Aireportuko segurtasunaren arloan, aireratze-pista animaliez garbi mantentzea berebizikoa da, hegazkinekin istripuak saihesten ditu-eta: "Hegazti batek hegazkinaren motorra hondatu dezake, eta fauna kontrolaren teknikarien betekizuna ezbehar horiek ekiditea da, belatzen bidez", adierazi du Pintok. 35 urtean hegaztiak sortutako hiru edo lau istripu ikusi ditu beterranoak Bilboko aireportuan. "Duela zenbait urte hegazkin bat aireratzeko prest zegoen. Pista kaioz beteta zegoen. Pilotuak ez zion fauna teknikarien aholkuei so egin eta aurrera egin zuen. Motorrak txori batzuk harrapatu zituen, eta hegazkinak minutu butzutara larrialdiko lur-hartzea egin behar izan zuen". Komunikazio aeronautikoa funtsezkoa da profesio honetan, eta pilotu, kontrol-dorre eta belatz zaindarien arteko harremana estua izan behar da derrigorrean.

Era honetako arazoak saiheste-ko, 90. hamarkada bukaeran falko-neria zerbitzua ezartzea erabaki zuen AENAn zerbitzu zentralak. Gaur egun Estatu mailako 35 aireportuk erabiltzen dute belatzen zerbitzua, oinarria Felix Rodríguez de la Fuente naturalistaren *Operación Baharí* proiektuan duena. *El Hombre y la Tierra* dokumentaletan azaltzen denez, Rodríguez de la Fuenteren arabera, belatzak erdiaroan erabiltzen ziren gazteluetan: "XI. mendeko pergaminoek gaur egungo

*"Hegazti batek
hegazkinaren motorra
hondatu dezake, baina
teknikariak hori ekidin
behar dute"*

*Estatu mailako 35
aireportuk erabiltzen
dute belatzen zerbitzua,
oinarria Felix Rodríguez
de la Fuente duena*

arazoei irtenbidea ematen diete", esaten du naturalistak *Rapaces Para Proteger el Vuelo de los Aviones* dokumentalean. Aireportuetako belatzen inplantazio sistemak arrakasta izugarria izan zuen 70. hamarkadan, Madrilgo Barajaseko aireportuan bereziki.

Bilboko aireportuko helikopteroen pistaren pare-parean, fauna kontrolaren teknikarien Bizkaiko Aldun-

diko Nukleo Zoologikoa dago, eta bertan egiten dute lan pista animaliez garbi mantentzeaz arduratzen diren profesio-nalek. 35 urteko Luis Guijarro Velasco ingurumen-teknikaria da, eta Rubén Burgos Sánchez 21 urteko ingurumen hez-kuntzako ikaslea. Politeknika Ikastegiko ikaslearen lehen eguna da. Hiru hilabete-ko praktikak ditu eta lanbide honetan murgiltzeko gogo izugarria. Luis Ciudad Realekoa da, eta bertako aireportuan urte bi igaro ostean Bilbokora heldu zen. Hegaztiak maite ditu, belatzak bereziki. "Lana bukatu bezain pronto belatzekin egotea atsegin dut, nire pasioa da, eta hemen ez bada Ciudad Realera eramaten ditut hegan egiteko", adierazi du hezitzaileak.

Hainbat espezie eta helburu

Teknikariak eraikin txiki batean egi-ten dute lan. Bertan, bulegotxo bat, ugal-ketarako laborategi txiki bat, haztegia eta belatzen lorategia dauzkate. Zentroan 50 belatz daude, espezie ezberdinetakoak: belatz handiak (peregrino, gaztelaniaz), gerifateak, sakreak, lanarioak, eta hibridoak. "Espezie bakoitzak bere funtzioa dauka", azaldu du Guijarrok: kaioak, koar-tzak edo ubarroak bezalako hegazti han-diak uxatzeko belatz



"Ugaztunekin daukagun arazo bakarra aireportuko inguruetao baserrietan bizi diren katuen mehatxua da"

handiak erabili ohi dira (geritafe emeak, sacreak eta hibrido batzuk); hegazti hotzak, usoak edo mika bezalako hegazti ertainak uxatzeko belatz handiak, lanarioak eta geritafe arrak erabili ohi dira; zozoak edo arabazozoak bezalako hegazti txikientzat, belatz handiak eta amerikarren arteko hibridoak. Hegaztiez gain, ugaztunak uxatzeko Harris belatza dute. "Ugaztunekin daukagun arazo bakarra aireportuko inguruetao baserrietan bizi diren katuen mehatxua da: inolako kontrol barik sartzen dira pista eta arazo larriak sor ditzakete", azaldu du Fernandok.

"Belatzak atletak dira, sasoian mantendu beharrekoak, bai fisikoki bai psiko-



logikoki", adierazi du Gujarrak. Teknikariek egunero ateratzen dituzte hegaztiak hegan egitera. Goizeko lehen argi izpiekin, lehen hegazkina aireratu baino lehen, belatz batzuk igotzen dituzte Belatz Autora. Buruan eskuz egindako larruzko kaskotxoak daramatzate, inguruan daukatena ez ikusteko. "Animalien zentzu men nagusia baliogabetzen dugu segurtasun neurriengatik: belatzak animalia harrapa-

"Belatzen hegaldien % 95a dispertsio erakoak izan ohi dira, beste hegaztiak pistatik uxatzeko"

riak dira, eta kaskorik eramango ez balute elkarri eraso egingo liokete, hil arte", azaldu du Luisek. Autotik jaistean, belatza teknikariaren eskura lotuta doa. Gaur haizea gogor ari du, eta ordubetez hegan egitea zaila izango da.

Pistara heltzean, kaskoa kendu eta itxaron egiten da, hegaztia bere kabuz hegan egiten hasi arte. Hegaldi hasiera ikusgarria da. Buztaneko lumetan txip aztarnaria daramate, animaliaaren posizioa seinale digitalaren bidez monitorizatuz. Beharrezko altuera eskuratzean, pista goitik behera arakutzen dute. Animaliaaren bat ikustekotan, zitzu bizian joango dira haren bila. "Belatzen hegaldien % 95a dispertsio erakoak izan ohi dira, beste hegaz-

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre
txori tokia



TXORIERRIKO UDALA

EUSKALTEGIA

2017ko lehen deialdia



B2

Matrikula-epea:
Martxoaren 24tik 31ra

Onartuen zerrenda:
Apirilaren 10ean

Irakurmeneko eta entzumeneko proben emaitzak:
Maiatzaren 10ean

Idazmeneko proba:
Maiatzaren 13an

Idazmeneko emaitzak:
Ekainaren 15ean

Mintzameneko proba:
Ekainaren 22an, 23an eta 24an

Emaitzak:
Uztailaren 11n

C1

Matrikula-epea:
Martxoaren 24tik 31ra

Onartuen zerrenda:
Apirilaren 10ean

Irakurmeneko eta entzumeneko proben emaitzak:
Maiatzaren 10ean

Idazmeneko proba:
Maiatzaren 13an

Idazmeneko emaitzak:
Ekainaren 15ean

Mintzameneko proba:
Ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean

Emaitzak:
Uztailaren 11n

 Herriko Plaza, 3 - DERIO
  Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38
  euskaltegia@txorierri.eu

“Markaketa-hegaldiak Bartzelona eta Bilboko aireportuan egiten dira soilik. Orain, Madrilén ezartzen ari dira”

tiak pistatik uxatzeko. Soilik % 5ean ehizatzen dituzte, eta animaliaren bat harrapatzenean, zentrora eraman, eraztuna jarri eta aireportutik 70 kilometrora eramaten ditugu, Diputazioak uzten digun distantzia minimora behintzat”, azaldu du Pintok. “Gainera, harrapaketa-teknikak ez dira kaltegarriak harrapakarientzat”, gehitu du.

Hegaldia bukatzean, Luisek muturrean abata daraman zinta antzekoa atera du zorrotik eta alde batetik bestera mugitzen hasi da pistaren erdi-erdian, hegaztiaren arreta erakartzeko. Segundo batzuetan, belatza zaindariaren eskura bueltatu da.

Dispersioa, markaketa eta kontrola

Dispersioa hegaldiak handikeriakoak eta eskuz-eskukoak izan daitezke eta helburua harrapakina uxatzea da. Bestalde, markaketa hegaldiak daude. Arruntenak dira, eta horietan belatzak 300-600 metroko altuera hartzen dute, 30 minutu eta ordubete bitarteko iraupenekoak, tenperatura-
ren arabera. “Hegaldi mota hau Bartzelonako eta Bil-



boko aireportuetan egiten da soilik. Orain, Madrilén ezartzen ari da”. Lurretik 600 metrora egonik kilometro bateko radioko distantzietatik eraso egiteko gaitasuna dute belatzek, eta euren ikusmen eremuak harana erraztasunez ikusteko gaitasuna ematen die: “Eraso horietako gehienetan ez da harrapakina lortzen, baina animaliak beldurtu eta pistatik ihes egiten dute”, azaldu du Luisek.

Egunean zehar 10-15 hegaldi egiten dituzte burnizko txorien zaindarien. Udan, egunak luzeagoak direnez, argi ordu gehiago daude eta hegaldi gehiago egiten dira:

“Egunean lehen markaketa-hegaldia egin ostean, gainontzeko belatzek hegan egiten dute, txandaka. Asmoa belatzek % 90ak egunean hegaldi bana egitea da”, azaldu du Luisek. Hegaldi saioak egiten ez daudenean, bulegoan orduak ematen dituzte teknikariak hegaztiak elikatzen, lumak zaintzen, parasitoak hiltzen eta zentroko mantenu-lanak egiten. “Elika-
gaia tentuz tratatu behar den esparrua da. Animalien pisua zehazki kontrolatzen dugu. Hegaztiak ez dituzte energiak edozergatik gastatzen: mugitzen badira gose direlako da”, azaldu du Ciudad Realekoak. “Gose badira, hegaztiaren errendimendua txikiagoa izango da. Horregatik, belatz batek hegaldi ona egiten badu, janari ugarirekin saritzen dugu, ekintza onak sari onarekin erlazionatzeko. Horrelaxe hezten dira belatz efizienteak”.





Inauteriak ikusgai

a: Idoia Andres, Jon Goikouria Larrabeiti eta DAT

Otsailaren 24 eta 25ean eta martxoaren 3 eta 4an Txorierriko inauteriak bizi genituen. Lehenengo astean Loiu, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzukoak izan ziren, eta bigarrenetan, Sondikakoak. Herri bakoitzean ikuskizun eta mozorro ugari ikusi ahal izan ziren, gau eta egun. Sondikakoen kasuan, asteburua euritsu hasi bazen ere, eguraldiak gupida izan zuen eta herriko jai garrantzitsuenetz gozatzea utzi zien bertara hurbildu zirenei. Ostiraleko Ken Zazpi taldeko kontzertua eta larunbateko kalejira jendetsuaren ostean, Hardcore.exe eta Garilak 26 taldeen kontzertuek behar bezalako amaiera eman zieten inauteriei.





Argazki-poteoa, Sondikan



Laugarren urtez, Sondikako Inauterien Elkarteak argazki-erakusketa antolatu du herriko 15 tabernatan. Martxoaren 24tik apirilaren 9ra bitartean argazkiak ikusi eta erosi ahal izango dira Artebe kiroldegiko kafetegian. Argibide gehiago, Inauterien elkartearen facebook orria eta taberna guztietan.

Informazioa:

sondikakoinauteriak@yahoo.es



LUZATU ZURE MOTORRAREN BIZIRAUPENA

Olio-aldaketa eta iragazki-aldaketa
%100 eko MOTUL sintetikoa (5W30 C2-C3) erabiliz.



Olio-aldaketa bakoitzarekin autoaren 24 punturen doako ikuskapena

Banaketa-uhala aldatzea

450€
-ETIK



Disko eta pastilletan

%30



Etorri gu ezagutzera!

Ikusi gure sustapenak eta deskontuak.
Etorri informatzera, eta opari erabilgarri bat egingo dizugu



Zure segurtasunaz arduratzen gara

Doako freno-likido aldatzea freno
eta pastilla aldatetekin



PNEUMATIKOEN ALDAKETA, MARKA GUZTIAK



688 847 633
946 572 315
944 654 991
lker@mujiailerrak.com

Muji TAILERRAK

MUJI TAILERRAK
Inbisa industrialdea
Astintze kalea 6 16-17 C2 Pabiloia
48160 Derio / Bizkaia

Euskal Estatu burujabe bateko herritarra izan gura duzu?

HAUTESLE-ERROLDA	BOTOAK	BAI	EZ	ZURIAK	BALIOGABEAK
1.585	919	866	31	1	21

t: Igor Elordui / a: I. Andres eta G. Peñafiel

2017ko martxoaren 19an Larrabetzuko herritarrek euskal Estatu burujabe bateko herritarra izan gura dutela ebatzi zuten. Honenbestez, Larrabetzuko eta, zergatik ez, Euskal Herriko historiara pasatu da San Jose eguneko igande eguzkitsu hura. Gure Esku Dago dinamikaren barruan, Ebatzi taldeak, Larrabetzuko Gure Esku Dagok, antolatutako herri-galdeketa parte hartu zuten Larrabetzuko herritarren % 94,23k euskal Estatu burujabe baten alde egin zuen. Botoa emateko eskubidea zuten 1.585 larrabetzuarretatik ia-ia % 58 pasatu zen Ebatziren lokalean egokitu ziren bi hautetsontzietatik botoa ematera, hau da, 919 herritarrek eman zuten botoa eta horietatik 866 baiezkokoak izan ziren. Ezezkoak, oster, 31 izan ziren (% 3,37); baliogabeak, 21; eta bakar, boto zuria.

Goizeko bederatzieta eman zitzaion hain egun bereziari hasiera. Adarraren soinuari eta txalapartaren hotsari erantzunez ehunka larrabetzuar gerturatu ziren Askatasunaren enparatzen, Larrabetzuko plazan, jarritako karpan egin zen hasiera-ekitaldira. Etxahun Lekueren bertsoak eta Bizkargi dantza-taldearen agurra jaso eta gero, 100 urteko Libe Asua eta 16 urteko Iñaki Elgezabal botoa ematera joan ziren. Lehenbizikoak izan ziren. Haien atzetik joan zen, ekitaldian irakurri-

Larrabetzuk ebatzi du



tako adierazpen hunkigarrian esan zuten bezala, "herri oso bat, zer izan gura duen ebatziko zuen herri bat".

Hasiera-hasieratik ilara luze xamarak eratu ziren hauteslekuaren atarian. Toti Martinez de Lezea eta Etxahun Lekue ere izan ziren bozkatzeko lehenengoetarikok. Han zituzten, zain, hainbat eta hainbat hedabide, euren artean TV3 Katalu-

niako telebista publikoa. Eta barruan, hauteskunde-mahaietako kideak, jarraipen zein berme batzordeetako kideak eta begiraleak, tartean Laura Mintegi eta Paul Rios.

Gaztelumendi Abesbatzaren emanaldiaren ostean, eguerdiko ordu batean, etorri zen eguneko bigarren momentu hunkigarria, Txori-martxan parte hartu



zuten txorieritarrekin batera, apirilean eta maiatzean galdeketa egingo duten Bizkaiko herrietako –gehi Legutio eta Urkabustaizeko–, ordezkariak plazara sartu zirenean, adarren soinuaz lagunduta. Horrez gain, Larrabetzun bezala egun horretan galdeketa egiten ari ziren Astigarraga, Hernani, Oarsoalde eta Tolosaldeako ordezkarien ahotsa entzun ahal izan zen bozgorailutik. Horren ostean, musika ibiltariak eta talo eta ogitarteko usainak hartu zituen Larrabetzuko plaza eta kaleak, eta ipuin-kontalaria eta herri-kirolen tartea heldu zenerako, paseak ziren “ebaztera” bozka ematera deitutako larrabetzuarren erdia baino apur bat gehiago.

Arratsaldean parte-hartzea moteldu egin zen, baina eten bako egitaraua aurrera zihoan heinean, plaza, karpa eta karpa ingurua betetzen joan ziren, Bizkargi dantza-taldearen erakustaldiarekin lehenengo, eta Geurea, eskubidea musika emanaldiarekin geroago: Etxahun Lekue, Fredi Paia, Leire Bilbao, Rafa Rueda, Keu Agirretxea, Mikel Etxaburu eta Josu Zabala.

Ilundiko zortzietan, hauteskunde-mahaiak ixtearekin batera, emaitzarekiko ikusmina areagotzen eta giroa berotzen joan zen; emozioa sumatzen zen denen aurpegietan. Zortzi eta erdiak pasatxo ziren atzera ere adarrak eta txalapartak emaitzak bazeudela iragarritz jendea karpakara deitu zutenean. Sentimenduak borbor eta barrea aurpegietan igo zen ohol-tza gainera talde sustatzailea eta eskutik oratuta eman zituzten emaitzak. Emozioak gainezka egin zuen eta malko bat baino gehiago isuri zen bai ohol-tza gainera, bai behean, egun historikoari amaiera eman zion Malen Amenabarren agur-ber-tsoarekin.



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest

Ana Alberdi

Mendako
Ikus-entzunezko
Komunikazioa, 4. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE - APIRILAK 27

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO - APIRILAK 29

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI - MAIATZAK 4

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA - APIRILAK 1

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI - APIRILAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO - APIRILAK 29

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA - APIRILAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA - APIRILAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA - MAIATZAK 13

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

902 110 436



t: Gaizka Eguzkitza / a: Aner Mentxaka

Korrika 20 martxan dago. Aurten martxoaren 30ean hasiko da Otxandion eta apirilaren 9an amaituko da Iruñan. Txorierrin euskeraren lekukoa apirilaren 6an, gabean, hartuko dogu. Euskaltzaleak Bilbotik etorriko dira eta 21:25ean sartuko dira Erandiogoikoan; Sondikan, 21:58an; Loion, 22:18an; Derion, 22:26an; Zamudion, 22:51n; Lezaman, 23:10ean; eta Larrabetzun, 23:31n. Handik Korrika Usansolara abiatuko da. "Eguna ez dogu guk erabagiten eta datorren moduan onartu behar da, baina ez da egun txarra: eguna da eta hurrengo egunean umeek eskolako azken eguna da. Ea gurasoek umeak eroaten dabezan Korrikara", dino Belen Gana AEK Txepetxa Derioko euskaltegiko kideak.

Urtero moduan, Korrikak omenaldi bat egingo dau eta aurten, hain zuzen be, 1980an Korrika sortu ebenak izango dira euskaltzaleen esker ona jasoko dabenak. "Merezi dabe, bai horixe, baina baita herri guztietako batzordeen kideak eta hain-

Korrika apirilaren 6an, gabean, Txorierrin

Non, noiz

- Erandiogoikoan, 21:25ean.
- Sondikan, 21:58an.
- Loion, 22:18an.
- Derion, 22:26an.
- Zamudion, 22:51n.
- Lezaman, 23:10ean.
- Larrabetzun, 23:31n.

bat urtetan Korrikaren alde beharrean ibili diranak be. Omenaldi horren zati bat guri be eskaintzen deuskuela uste dot nik", dino Belenek. Txorierriko herri guztietan batzorde bana sortu da eta hori, Txepetxa esukaltegiko arduradunaren



berbetan, lorpen handia da. "Gazteak botaten doguz faltan herri batzuetan, baina tira, jendea, betiko moduan, izugarri inplikatu da. Izan be, Korrikaren atzean kristoren lana dago eta hori batzordeek egingiten dabe: ekintzak antolatu, dana koodenatu... Ezinbestekoak dira herrietako batzordeak".

"Edurne Brouard urte askotan Korrikaren arduradunak esan dau dirua behar izan ez bagendu be, Korrikak behar-beharrezkoa izaten jarraituko leukeela. Ni ados nago: Korrika dirua batzeko asmatu zan, bai, eta oraindik behar dogu, baina Korrikak balio dau jenteak barneratzeko danon artean aurrera egin behar dogula, ez bakarrik lekukoa eroaten dauenak. Korrikak geure hizkuntza aldarrikatzen dau. Lasterketea erraldoia egitea, Euskal Herri osoan, herriz herri, gabez zein egunez oso garrantzitsua da. Eta euskaltzaleen topagunea be bada, batzuk urtero horren haritik batzen diralako".

Argazkiak batzea

Txorierrin otsailaren 17an aurkeztu zan Korrika 20.a, Derioko Baserri Antzokian. Txepetxakoek ekitaldi polit eta hungikarria egin eben: euskaltegiko ikasleek hartu eben parte, aurreko edizinoak laburbiltzen ebazan argazki galeriaren bi-



WAFETEGIA
IAZI
JATETKEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINETXAKO OIRAK HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 beheka Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

deo bat igorri eben, omenaldia egin eutseen laguntzaileei eta bidean galdu-tako lagunei... Bertoko Zamudioko taldea be aritu zan bertan, baita txalapartari batzuk be. Euskaltegiak Korrikan urteetan zehar egindako argazkiak eskatu deusteez txorieritarrei, ia 40 urteko ibilbidearen argazki-album handia osatzeko eta gordetzeko.

Aurkezpen-ekitaldiak hasikera emon eutson Korrika Kulturalaren egitarauari. Hau da, Korrikaren haritik herri guztietan antolatu diran zenbait ekitaldi. Besteak beste, jaiak, tailerrak, kontzertuak, ikuski-zunak, bazkariak, pelota partidak, bertosaioak eta berbaldiak. Ekintzak Korrikaren aldeko giroa suspertzen ibili dira. Ildo honi jarraituz, urtero moduan, Txepetxakoek Otxandiora, urteera, eta Iruñara, helmuga, joateko autobusak antolatu dabez, martxoaren 30erako eta apirilaren 9rako.

Korrikaren aurtengo edizinoaren leloa *Batzuk* da. Horrek aniztasuna adieraz gura dau eta berba joko bat egiten dau "bat" eta "zuk" berben artean. "Euskerea hizkuntza, kultura eta mundu bat da. 20. Korrikak zugaz berba gura dau. Nik, hik, zuk, hark. Guk, zuek, haiek. Bat eta batzuk: nire hizkuntza, zure hizkuntza; gure kultura, gure kulturak; mundu hau, mundu horreek. Hizkuntza baten alde egitea, azken baten, guztien alde egitea da. Kultura unibertsalaren alde. Hizkuntza-bardintasunaren aldeko jaira gonbidatzen zaitugu. Mundu unibertsalagoa sortzera", esan dabe AEK-koek.



Korrika kulturala

Martxoak 30:

–Otxandiora joateko autobusa, Txepetxa euskaltegiak antolatua. 11:00etan.

–*Emakumea eta surfa*, Garazi Sánchezen berbaldia. Sondikako Kultur Aretoan, Altxora alkarteak antolatua.

Martxoak 31:

–Kepa Junkeraren *Maletak* ikuskizuna, Derioko kiroldegian.

Apirilak 1:

–Bazkariak, Sondika eta Derion.

Apirilak 6:

–Poteoa eta txokolatadea, Erandion.

–Umeentzako ekitaldiak, Izarza bidean. Poteoa eta txokolatadea, Sondikan.

–18:00tik aurrera, Derion: kartelak pintatzea, umeentzako festa. Poteoa.

–Txitxi burduntzia eta txokolatadea, Zamudion.

–Herri afaria, umeentzako tailerrak, musika herriko taldeakaz, Korrikaren argazkien proiektino, Lezaman.

–Pintxo potea, parrillada, txokolatadea, Larrabetzuko plazan.

Apirilak 7:

–Bertso afaria, Derioko Baserri Antzokian. 21:00etan. Bertsolariak: Arkaitz Estiballes, Etxahun Lekue eta Fredi Paia. Sarrerak, euskaltegian salgai.

–Bost ikastetxeen arteko Korrika Txikia lehen aldiz, Loian.

–Korrika Txikia, Txorierriko eskoletan.

Apirilak 9:

–Iruñara joateko autobusa, Txepetxa euskaltegiak antolatua. 09:00etan.



Unitzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 433 40 60 | info@txorierri.net
48100 - DEIRO | Fax: 94 433 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK

Apirilak 25, maiatzak 4 eta ekainak 8 (18:30tik aurrera)

ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Gure tailerrak eta laborategiak ezagutzera etorri

"Ez genuen hausnarketarako denborarik izan"

LANTEGIKO LANGILE OHIA

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Txorierriko emakume langileen artean Eugenia dago. Haraneko emakume askok bizitza landa esparruan eman bazuten ere, Asua eta inguruetako emakume askok industrian eman zuten bizitzako zati garrantzitsu bat, eta Emakumearen Nazioarteko Egunaren jaiotzara eramane gaitu SIGA lantegian izandako biziaren bitartez.

Asuako SIGA enpresako sirena goizeko 05:00etan hasten zen zarataka. Alboko herrietan entzun zitekeen langileentzako

dei hura. Gaua zen oraindik. Dena ilun zegoen. Garai hartan, Asuako emakume asko ohetik jaiki eta Txorierriko lantegi bakarrera joan ohi ziren, lan egitera. Eugeniak 14 urte zituela utzi zuen eskola eta josteta eta bordatu lanetan hasi zen. 15 urterekin SIGA lantegian hasi zen ama eta hiru ahizpekin.

Bizitza osoa lanean eman duen emakume ausarta da Eugenia. Horrela erakusten dute zimurrez beteriko eskuak. Lanez josita dauzka, eta kalean irtetean, etxe aurrean, SIGA enpresa ohia ikusten du egunero, eta oroitzapen ugari dakarkio

burura. Etxea fabrikatik kilometro eskas batera zeukan, eta lo gehiago egiteko aukera zuen. Goizero, loguraz, Torretas auzotik lantegira abiatzen ziren ama eta hiru ahizpak. "07:00ak aldera Lutxanako trenajende z gainezka heldu ohi zen, ezkerral-detik", gogoratu du Eugeniak. "Lutxanatik ez eze, Goierri, eta Loiutik ere langile asko oinez etortzen ziren". Edozein lantegitan gertatzen den bezala, langile gehienak gizonezkoak ziren.

Eugeniaren lana gizonek fabrikatzen zituzten metalezko hodiak gomaz txirikordatzea zen, ondoren disoluzio antzeko kola aplikatzeko eta bulkanizatzeko. Azken produktu eskuz egindako 20 metroko mahukak ziren. Amak eta ahizpek alboko pabilioietan egiten zuten lan, etxetresna elektrikoetarako gomak sortuz, besteak beste. "Gure pabilioian 40 gizon zeuden hodiak egiten eta lau emakume horiek guztiak txirikordatzen eta beste hiru zilindroak batu eta galdaretara eramaten". Beste alde batean zapatagintza pabilioia zegoen. "Han egiten zuten lan emakume

Odolezko bataioa

1857. urteko martxoaren 8an, New Yorkeko ehungintza lantegi bateko ehunka emakume kalera irten ziren, euren lan baldintzak salatu eta soldata duinak eskatzeko: gizonezkoek jasotzen zutenaren erdia kobratzen zuten. Baina poliziak martxari eraso egin eta berdintasuna eskatzen ari ziren 120 emakume kolpeka hil zituen. Handik urte bira emakume langileek lehen sindikatua sortu zuten.

Martxoaren 8a sinbolo bihurtu zen, eta harrezkeroztik egun horretan protestak egiten hasi ziren. 1909an

Emakumeen Egun Nazional ofiziala egin zen, AEBetako alderdi sozialistak otsailaren 28an izendatua "Ogia eta Arrosak" lelopean (ogia, segurtasun ekonomikoa bermatzeko; eta arrosak, bizi-kalitatea). 1910ean Emakume Sozialisten Nazioarteko II Hitzaldia egin zen Kopenhagen, zeinetan emakumeen sufragio unibertsala eskatu zen eta Clara Zetkinen Emakumeen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an izatea proposatu zuen. Esan eta egin, proposamena aho batez onartu zuten 17 lurraldetako 100 emakumek.

*"Pabilioiko
arduradunak
gure lana
kronometratzen zuen"*

*“Senarrak emakumeekin
lan egindakoa zen, eta
ez zuen nahi ni
emakume horiek
bezalakoa izatea”*

gehienek: galdaren gelan dozena erdi gizon baino ez zeuden eta 100 emakume baino gehiagok egiten zuten lan”.

Lan baldintzak oso gogorak izan ohi ziren. “Ama hasi zen garaian 24 pezeta irabazten zituen astero, 1937 urtean; nire azken urteetan 100 peseta irabazten nituen. 06:00-14:00 eta 14:00-22:00etarako lan txandak zeuden eta ordu erdiko etenaldia geneukan gosaltzeko. Horrela-lanaldiak ziren astelehenetik larunbatera”. Horrez gain, Eugeniak gizon eta emakumeen soldataren artean sekulako diferentzia zegoela adierazi du, eta sarritan euren lana ikuskatzen zuen ardura-duna zegoen. “Pabilioi bakoitzak ardura-dun propioa zeukan eta gure kasuan gure lana kronometratzen zuen gizon bat izan ohi genuen: zortzi orduko lanaldian zenbat hodi txirikordatu ahal genituen jakiteko”.

“Txarrena arduradunen errietak izan ohi ziren, askotan era txarrean esaten zizkiguten gauzak”, errepikatu du hainbat aldiz elkarrizketan. “Hala ere, gutxiarekin konformatzen ginen eta ondo pasatzen

genuen denon artean: emakumeen arteko harremana oso sana ohi izan zen”. Lanetik irten bezain pronto, joste lanak eta bordatuak egiten zituen, bai etxerako, bai partikularrentzat. “Ezkontzetarako apaindura ugari egin nituen”.

Igandeak disfrutatzeko egunak izaten ziren. “Eskola garaian plazan eman ohi genituen igandeak, eta lantegiko garaian, Rosarioko mezaren ondoren zinemara eta gero erromeria joan ohi ginen, dantza egitera. Zineak 60 zentimo balio zuen, eta auzotarrek 10 zentimorekin laguntzen ziguten sarritan”.

Ezkontzaren madarikazioa

1961. urtean Eugenia ezkondu egin zen, eta garai hartako emakume gehienek gertatu zitzaizen bezala, bere bizitza profe-

sionala egun hartan amaitu zen. Lana utzi eta etxeko lanei dedikatu zien bizitza, gaur egun arte. “Senarra emakumeekin lan egindakoa zen, eta ez zuen nahi ni emakume horiek bezalakoa izatea”. Horrela, 14 urte fabrian eman ostean etxera itzuli zen, etxeko behar guztiez gain, josi eta bordatuak egitera. Ondoren, seme-alabak izan zituen, eta gero, ilobak.

“Emakumeok aurrera egin dugu baina ez dugu berdintasuna lortu. Garai hartan ez genuen hausnarketarako denborarik izan, lan egiteko bizi ginen”. Gaur egun Sangroizeko trenbide ondoan dagoen BEAZ enpresa-haztegi bihurtu da, eta Eugeniak behin eta berriro ikusten duen irudia da, etxetik irteten den bakoitzean. Bera bezalako emakumeen aztarnak ezabagaitzak izango dira, betiko.



SIGA lantegiko langileak, guztiak gizonezkoak.

LEIOA, La Avanzada 80 - 944 316 516

WWW.SUITDELUX.COM

DERIO, Seminarioa - 944 545 147

"Balbulek garrasi egitea gustatzen zaigu"

MIDNIGHT ROAD



t: Jon Goikouria Larrabeiti / a: MR

Midnight Road ez da talde berria eta aldaketa asko izan ditu.

Taldeak 2006an jaio zen. Harrezkero aldaketa asko izan ditu formazioak. Kideak joan eta etorri ibili dira, euren proiektu profesionalak direla eta. Momentuz Jambó (bateria jolea) da hasierako taldeko kide bakarra. Gainontzekoak berriagoak gara.

2016ko abenduan Josu Tolin loiuztarra heldu zen, Holly Brandy taldeko abeslaria.

Bi taldeetan jotzen du. Holly Brandy taldean abeslari eta gitarra-jotzaile dabil. Gurean gitarra bakarlarri bezala dabil, nahiz eta lehen asmoa abeslari aritzea izan. Azkenean, betebeharrak hori Jon Martinezentzat izan zen.

Josu txikitatik ibilia da musikan...

Hard Rock taldea indartsu aritu zen urtarrilean, Baserri Antzokian. Formazio aldaketa asko izan dituen bandaren azken fitxaketa Josu Tolin Pedrosa loiuztarra izan da. 2016ko abenduan heldu zen musika taldera, eta momentu honetan Belfasten dabil ingeniari-tza zibileko praktikak egiten. Bueltan, taldearekin jo eta su aritzeko prest dago, ekain aldera.

Zortzi urterekin murgildu zen musikan. Aitak Rolling Stones-en kontzertu batera eraman zuen eta txunditurik geratu zen. Urtebetetzean gitarra bat oparitu zion eta ordutik aurrera gelditu barik dabil. Bere pasioa, taldeetan aritzeaz gain, gitarra eskolak ematea da.

Midnight Road: non ibili zarete?

Estatu mailan Bilbo, Gasteiz, Iruña, Najera...; hala ere, Estatu Batuetan izanak

gara eta kanpora berriro irteteko gogoak dugu, era horretako esperientziekin cachea gehitzen diete taldeei.

Baita Derioko Baserri Antzokian ere, ezta?

Bai, noski! Zur eta lur utzi gintuen antzokiko kontzertuak. Eszenatokiaren tamaina itzela da eta ondo baino hobeto tratatu gintuzten han. Soinu aldetik gustura ibili ginen, nahiz eta ozenago jotzea

elekma
LARRATZENEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXOKAK

Lehenengo mailak • Prezioak onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txerri etorbidea, 25-3.74 • 48160 DERIO
T: 944 539 232
www.elekma.es

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOROGINTZA AFATA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefona 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungia etorbidea, 25
48160 DERIO

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

*"Estatu Batuetan izanak
gara eta kanpora berriro
irteteko gogo dugu,
esperientzia horiek
cachea ekartzen dutelako"*

gustatu: balbulek garrasi egitea gusta-
tzen zaigu. Gainera, ondo baino hobeto
afaldu genuen!

**Denbora pasatu da *Thin Lines* dis-
koa argitaratu zenutenetik. Bederatzi
urte.**

Denbora asko pasatu da, eta taldea
egonkortzera heltzen denean argitaratu-
ko dugu bigarren albuma. Espero dugu
urte amaieran abesti berri guztien auke-
raketa egitea eta estudioan sartzea.

Zigilupean?

Thin Lines RockStudioko Carlos
Creatorrekin grabatu arren ez daukagu
zigilurik. Gure kabuz kudeatu dugu dena.

Agentziarik ez, beraz?

Agentzia izateak ez du zertan bermatu
arrakasta. Normalean horrela izaten
da, baina dirua inbertitu behar da horre-
tan eta gaizki funtzionatzen duten zigilu
asko daude.

Zer-nolako erreferenteak dituzue?

Kiss, Aerosmith, Guns & Roses... tal-
dekide bakoitzak gustu propioak dauzka,
baina erreferentzien %100 amerikarrak
dira.

**Abestiak ingelesez konposatzen di-
tuzue.**

Hainbat hizkuntzatan kantatzen du-
ten taldeak entzuten ditugu: erdaraz,
euskaraz... M-Clan gustuko dugu, ez gaz-
teleraz kantatzen duelako, ezpadaze he-
goaldeko doinuarekin egiten duelako.
Hala ere, kantatzerako orduan ingelesez
egin dugu beti, azken batean gure in-
fluentziak amerikarrak direlako.

**Zelakoa da musikaren egoera gaur
egun?**



Hobby bat bezala hartzen bada, ondo
pasatzeko, ez dago inolako problemarik.
Ogibide bezala bada, ordea, jai dugu!
Esaten da rocka astiro-astiro hiltzen dabi-
lela. Euskal Herrian bizirik dirau hemengo
jendearen ohituragatik: The Wizzards eta
Highlights bezalako taldeen izenak en-
tzuten ari dira azken bolada honetan, eta
gure estilorako onuragarria da hori.

**Zein izan daiteke arrakastaren
gakoa gaur musikan?**

Horrez gain, Interneten entzutetsua
izatea berebizikoa da: *trending topic*-a iza-
ten saiatu behar gara eta jendeak gutaz
hitz egitea lortu behar dugu. *Bizkaia En
Vivo* sareak 70-80 kontzertu iragartzen di-
tu astebururo; beraz, ez da eskaintza kon-
tua.

**Internet gakoa bada, non entzun
dezakegu MR?**

Spotify, Reverbnation, Bandcamp eta
Youtuben.

*"Musika ondo pasatzeko
hartzen bada, ez dago
inolako problemarik.
Ogibide bezala bada,
ordea, jai dugu!"*

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Peluleria
Estetika

Servicio de Peluqueria y Estetica



tlf. 94 455 81 44
Anguri 2 bajo Larrabetzu - Bizkaia

TURREGOITI
JATETXEA

Laura eta elorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitil.com



FRUTAK **BARAZKIAK**



Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel mota
Produktuak zeliakoentzat

Gaztelumendi, 3 - behea
48195 Larrabetzu
94 455 89 19

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Garikoitz Lezkano larrabetzuarrak eta Txaber Santiago derioztarrak Gurutzetako ospitaleko korridoreetan ezagutu zuten elkar, duela 12 urte. Euren amak, Kontxi Pereiro eta Maite Atutxa, urduri zeuden, euren semeak diagnostikorik gabeko gaixotasun arraroak zituztelako eta euren problemari inork ez zielako inolako irtenbiderik ematen. Bizitza era oso gordinen hasi dute gaztetxoek lehen momentutik eta ospitaleetan ezagunak bihurtu dira ezinbestean.

Bost urte igaro behar izan ziren medikuek gaixotasun arraroa zuela esateko. "Zeoz gertatzen zen", azaldu du Maite Atutxak. "Txaberrek zazpi hilabete baino ez zituela heste-inbaginazioa detektatu zioten, baina gaixotasunik ez. Gaixotasunak banan-banan baztertzen joan ziren, aukera guztiak agortu arte". Gaur egun, bai Kontxik, bai Maitek ez dute euren semeen gaixotasuna zein den ziurtatzen duen agiririk: "Gaixotasun arraroa bada, baina ez du izenik", diote bi emakumeek. "Gaixotasun arraro bat izanda ere, izen esanezinekoa, identifikatuta dago behintzat".

Orain gutxira arte, ume biek ezin zuten janaririk ahotik irentsi, eta elikagaia gastrostomia bitartez urdailera zuzenean doan hodi baten bidez aminoazido presaketa batean ematen zieten (ama-esnean oinarrituriko elikagaia). "Gaixotasuna fisikoa baino psikologikoa da. Janaria eguneko edozein momentutan agerian dago. Imajinaezina da egun bat janaririk gabe: telebistak momentu oro erakusten digu janaria, eta

Gaixotasun ezezagun batengatik lagun

Jaio ziren lehen momentutik, elikagaiak liseritzeko arazok izan zituzten Garikoitzek eta Txaberrek. Bizitzako lehen urteetan izenik gabeko gaixotasun arraroa zutela esan zieten medikuek. Ez zegoen tratamendurik, eta medikuek ez dute jakin ume horien arazoei nola aurre egin. Gauetik egunera, inolako azalpenik gabe, Txaber zenbait elikagai onartzen hasi zen, eta Garikoitz ere, astiro-astiro, horretan dabil.

"Izen esanezineko gaixotasun arraro bat izanda ere, identifikatuta dago behintzat"

horrek sekulako inpaktua du umeengan. Edonon dago janaria", azaldu du Pereirok.

"Osakidetza medikuek ez ziguten laguntzarik eman fisikoki, gaixotasuna nola tratatzen den informaziorik ez dute lako". Ezegonkortasun honen aurrean, psikologoaren laguntza ezinbestekoa da: "Ospitaleko psikologoei, oster, etorriko dena jasateko indarra ematen digute,

eta euren lanagatik ez balitz ez genuke jakingo aurrera egiten: psikologikoki oso ondo tratatu dituzte umeak, euren mugak zer-nolakoak diren kontuan izanda".

Amak, medikuak eta erizainak

Ama izatea berez gogorra bada, era honetako arazo bati aurre egiteko orduan bestelako gaitasunak eduki behar dira: "Ospitaleko erizain askok ez dakite nola manejatzen diren umeek daramatzaten gailuak, eta guk geure kabuz ikasi behar izan dugu", azaldu du Kontxik. Maitek behin gastrostomiaren botoia bere kabuz aldatu behar izan zuen, eta lehen aldi hartan gaizki egin zuen, antza: "Amortzetzkoa izan zen benetan: ez nuen behar bezala etzan. Ez zegoen inor nola egin behar nuen azaltzeko. Ikaragarria da", azaldu du





Ume biei elikagaia gastrostomia bitartez urdailera doan hodi baten bidez ematen zieten

Maitek. Euren semeen gaixotasun arraroan adituak egin dira bi amak, bestelako alternatibarik izan ez dutelako, eta aurrea egiten jakin dute.

Medikuanera doazen bakoitzean, gaixotasunaren erretolika bera kontatu behar diote idazkariari, nahiz eta besoa apurtzeagatik edo eztul batengatik izan: "Ez dago gaixotasun arraroak dituzten umeen historial eguneratu bat, botoi bat sakatzean gaixoaren nondik norako guztiak azaltzen dituen", kexatu da Kontxi. "Askotan, zoroa bazina ikusten zaituzte, baina urte asko daramatzagu semeen gaixotasun arraroak pairatzen eta sintomak ondo baino hobeto ezagutzen ditugu", dio Maitek. "Proba guztiak egin ostean ulertzen gaituzte".

Gaixotasunak familia osoa gaixotzen duela adierazi du Maitek: "Gabon zaharrean 21:30ean oheratu Txaber eta telebista ikusten geratzen nintzen. Bitartean, senarra eta alaba familiakoengana joaten ziren", dio Maitek. "Duela lau urte Tenerifeko hotel batera joan nintzen alabarekin, 15 urte zituela", azaldu du Txaberren amak. "Hotel bat zapaltzen zuen lehen aldia zen. Hotelera heldu bezain pronto pozik al zegoen galdetu nion, eta negarez hasi zen".

Txaberren kasuan, umeak gaixotasunaren sintomak edukitzeari utzi zion 10 urte egin zituenean, eta gastrostomia erabiltzeari utzi zion. Maite elikagai ezberdinak ematen hasi zen: "la denerik jaten du. Hasieran karbohidratoak ema-

ten hasi nintzen: makarroiak, pasta, purea...; organismoak onartu ahala, bestelako janaria ematen joan naiz, arraina eta haragia izan ezik, batez ere arrainari allergia diodalako", esan du derioztarrak. Kontxik dioenez, sintomak izateari uztea ez da janarien kontua, elikagai batzuen usaina baino. Garikoitzek gastrostomiarekin jarraitzen du, baina aho bidezko zenbait elikagai jaten ere hasi da.

Garikoitz eta Txaber eta euren familien etengabeko borrokak fruituak ematen ari da astiro-astiro, eta bizitakoa mugaz beteta egon arren, gurasoen helburua euren semeek oztopo horiek gainditzea da. Txorierrin Garmitxa elkartearen arabera estatu mailan Garikoitz eta Txaber bezalako Garmitxako kide diren bost kasu daude, eta Kontxi zein Maiteren esanetan, estatu mailan uste baino kasu askoz gehiago daude: "Gaixotasuna identifikatuta ez dagoenez, jendeak ez daki gaixotasun hori pairatzen duen ala ez".

Argibide gehiago:
www.garmitxa.org

Udalekuak
Ponyak
Urtebetzeak
Jaialdiak
Terapiak zaldiekin
Haurrentzako ekintzak
Ibilaldiak
Hastapen ikastaroak
Alokairuak

620 153 693

Goitioltza, 33 bis **LEZAMA**

9:00-20:00

www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com



Jatabeko abadea, medikua, idazkaria eta astoa

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Anekdotak hau aspaldian gertatu zen. Aldi hartan, ez zen behar Google maparik, astoak ondo ezagutzen zituen bidezidorrak-eta. Jataben –Jata mendiaren magaleko herrian– gaixotu egin zen Mauri errotaria, eta Begoña emaztea medikuaren bila abiatu zen urira. Zoriturrez, doktorea musean jokatzeko aurkitu zuen taldean, abadearekin eta udal-idazkariagaz batera. Orduan, iluntzea zenez, urruneko errotara laguntzeko eskatu zion osagileak apaizari.

Igo dute biek asto gainera, abadea aurrean, medikua atzean, eta hor doaz tipi-tapa, astoaren belarrietarako arrotz diren hitzak aipatuz: psikologia, parabola, gastritis kronikoa, eta abar. Kontua da, euri zaparraden ondorioz, erreketako urak handi direla. Halako ibai bat gurutzatzerakoan, astoari sakon sartu zitzaizkion aurreko hankak erreka bazterreko basartean. Belarri luzedunak pentsatu du: "Ai ene! Ni ez naiz anfibia gero!". Hala ere, ez du protestarik egin, abade bedein-katua eta doktore jakintsua daramatza bizkar gainean-eta. Medikua, berri,

sendo oratzen dio apaizari gerritik, esanez: Ene **badatxua**, nirea izan da! Kosme eta Damian santuok, lagundu! Egoera apokaliptiko horretan, apaiza begiak zerura jasorik Aita Gurea erreztatzen hasi da. Eta doktoreak ahots dardartiz **dinotso**: Jauna ez beza otoitzik egin berorrek ze, astoa belauniko jartzen bada, hirurok itoko gara.

Dena dela, ez dakigu Mauri errotari gaixoa osatu zen ala ez. Badakigu, medikuak sendatu ez bazuen, abadeak bedein-katuko zuela zerurako bidaian.

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

ASADOR FUENTENE berria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jentoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBI-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAYARITZA
Nerea Pedraza kalea, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

20. korrika *aek*

HIZKUNTZA, KULTURA, MUNDU



2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra
OTXANDIOTIK IRUÑERA



www.korrika.eus

BADATOR!

BAT
ZUK



Palometa popieta, otarrainxka bihotzarekin

a: Jon Goikouria Larrabeiti

Osagaiak (lagun birentzat):

- Palometa xerra bi.
- Otarraixkak.
- Tipula porru eta azenario bat.
- Arroza.
- Patata bi.
- Brandy apur bat.
- Piperrauts gozoa.
- Tomate bat.
- Saltsa amerikarra.
- Arrain fumet-a.

Prestatzeko era

Hasteko, saltsa amerikarra prestatu behar da. Horretarako, tipula, azenarioa eta porrua su txikian frijitu behar da, eta prest dagoe-nean,

tomatea, eta otarrainxken gainerakoak gehitu (otarrainxkak zuritu eta erretserbatuko ditugu, gero erabiltzeko). Brandy bota eta flanbeatu. Piperrauts bota, eta ondoren, fumet-a gehitu. Azkenik, arroza jarri eta 30 minutuz irakiten utzi. Birrindu eta puregailutik iragazi. Arraina hartu eta gatzaz eta piperraz ondu. Ondoren, tipula eta azenarioa juliana erara ebaki eta su txikian frijitu. Arrainarekin biribilia egin frijitutako tipula eta azenarioarekin. Erdialdean otarrainxka zurituak gehitu, bakkarra biribiki bakoitzean.

Popietak egiteko, labe plaka aluminioko paperaz estali eta aurretik markaturiko patatak jarri gatzaz eta piperraz ondus, porruarekin batera.

Gaiean popietak ezarri eta aluminiozko papera itxi, paketexoak sortuz. Labean sartu 180 gradutan, bost minutuz.



Etxeko sukaldaritza

Izokin eta lebatz terrina

t: M. Lekerika / a: blogexquisit.blogs.ar-revista.com

Osagaiak:

- 600 gr izokin fresko, garbitua.
- 300 gr lebatz, garbitua.
- 500 ml esnegain.
- Bost arrautz zuringo.
- Gatza eta pipermin zuria, edo berdea garauetan.

Prestateko era:

Desegin izokina ondo eta gehitu apurka-apurka 300 ml esnegain, hiru zuringo eta pipermina. Egin gauza berdina lebatzagaz falta diren osagaiak: gehitu 200 ml esnegain, bi zuringo eta gatza. Estali ondo barrutik burdin molde bat, plastikozko filmagaz. Nahasteak kontu handiagaz bota hurrengo ordenean: lehenengo izokin erdia, gero lebatz erdia, izokin, lebatz... Estali ondo filmagaz eta sartu labe beroan, Maria bainuan, 150 gradutan, 50 minutu inguru. Jan baino lehen ordu bi itxi hoztutun. Mahonesa edo saltsa arroseagaz lagundu leiteke.



RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

GORBEIA MERTZERIA
arropa / zapatak
konpontzen ditugu
Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel: 94 452 0808

PATXI
KOOP
FADO KOOPERATIBA ELKARTEA
Neritxar pilgona - Txauru 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 587 - info@paxi.coop - www.paxi.coop

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Umeekin zer irakurri?

Neskak eta mutilak

Ana Apika

Egilea: Aingeru Mayor eta Susana Monteagudo.

Argitaletxea: Litera libros.
Liburutegietan dago irakurgai.

Aingeru Mayor haur sexologian da aditua. Horren haritik, gurasoentzako hitzaldi eta ikastaro arrakastatsuak eman ditu, bai Euskal Herrian, bai Estatu mailan. Mayor irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean, baita Crysallis elkartearen presidentea ere. Elkarte hori ume eta gazte transexualen familiek osatzen dute. Bere lanak aitzindariak dira eta zortzi hizkuntzara itzuli dira.

Transexualitatea da, hain zuzen ere, *Neskak eta mutilak* liburuaren gai nagusia. Munduan 2.000 milioi neska eta mutil daude. Denak, desberdinak. Batzuek ile

luzea daramate; beste batzuek, laburra; batzuek belarritakoak daramatzate; eta beste batzuek, ez. Neska askok printzesa moztarra jantzen dute, baita hainbat mutilek ere. Eta badira pirata moztarra jantzen duten neskak ere bai, zenbait mutilek egiten duten moduan. Mayorren liburuak argazki albuma aurkeztu digu, eta bertan 27 neska-mutil agertu dira, nork bere buruari buruz hitz egiten eta nork bere ezagurriak erakusten.

Transexualitatea, hizpide

Neskak eta mutilak liburu berezia da, ez duelako istorio bakar bat kontatzen. Liburua, aldiz, informatiboa da, gai jakin bati buruz hitz egiten digu, transexualitateari buruz, alegia. Eta aukera polita da gai korapilatsu hori umeekin jorrazteko. Izan



ere, azken bolada honetan transexualitatea hedabideetan eta gizarte mailan pilpilean egon den gaia da, eta ez legoke txarto umeei gogoraraztea pertsona guztiok, nahiz eta desberdinak izan, eskubide berberak ditugula.

ARINKA KASTEGIA
Goiko kalea, 6 DERIO
LH - DBH - BATX.
INGELES - MARRAZKETA
ERROBOTIKA
TAILERRAK / ESKOLA LAGUNTZA
944 544 753 695 78 77 74
www.arinkakopidenda.com arinkakastegia.blogspot.com

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

BIZKARGI
TABERNA ETA JAKARIA
Urkiola, 6 DERIO 944541655

Hitzaldiak

Derio

- > *Frustrazioaren Beharra; Ezetzaren Garrantzia*. Apirilaren 4an, 18:30ean, Kultur Birikan.
- > *Korrika Egiteko Jaioak*, Juan Ignacio Pérezen eskutik, BANZientzia programan. Martxoaren 27an, 18:00etan, Baserri Antzokian.

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan. *Jaungoiko Guztiak Dituen Emakumea Naiz* (Amaia Lasa). Apirilaren 27an, 19:00etan, Errebale 2ko azken solairuan.
- > *Operara Hurbilduz* hitzaldia. Apirilaren 27an, 18:30ean, Angulerin.

Ikastaroak

Zamudio

- > Postre tailerra: Madalenak. Apirilaren 8an, 19:00etan, Gazte Estazioan.
- > ZEN meditazio ikastaroa. Apirilaren 20an, 19:00etan.

Ikuskizunak

Derio

- > Liburu Eguna. Ana Apika ipuin kontalaria. Apirilaren 27an, 17:30ean.
- > *Balio Magikoak*, Oliver magoaren eskutik. Umeentzako magia. Apirilaren 9an, 12:30ean, Gurea Aretoan.
- > Apirileko Dantza, Piperdun elkartearen eskutik. Apirilaren 23an, 16:00etan.

Zamudio

- > Liburu Eguna: *Kulunkantauri* umeentzako ipuin saioa. Apirilaren 23an, 11:30ean, Udal liburutegian.

Irteerak

Derio

- > Zeharkaldia Urdaibaitik, Untza taldearen eskutik. Apirilaren 2an, 08:00etan.

Zamudio

- > Bizkaiko Foru Aldundia ikustera irteera, Lagunandre elkartearen eskutik. Apirilaren 5ean, 16:00etako trenan.
- > Iparraldera Lagatzu eta Arroeta Mendi taldeekin. Apirilaren 29an. Izena eman apirilaren 19an baino lehenago.

Lezama

- > Kolitza mendia. Apirilaren 2an, 09:30ean. Lezamako eskolatik.
- > Mendebaldeko mendigunea. Hiru eguneko irteera. Apirilaren 28an, 16:30ean. Herriko plazatik.

Jaiak

Derio

- > *Uribe Gastrofest*. Apirilaren 2an, 10:00etatik 15:00ak arte, frontoian.
- > Gurea Aretoaren X. urteurrena: Bocabeats Comedia. Apirilaren 27an, 19:00etan, Gurea Aretoan.

Larrabetzu

- > Txorierriko Txakolinaren Eguna. Apirilaren 9an.
- > Liburu Eguna. Apirilaren 23an.

Lehiaketak

Derio

- > Txorierriko Bira. Apirilaren 8an, Baserri Antzokian. Izena emateko: 635 753 595.

Zamudio

- > Balkoi apainduen IX Lehiaketa izena emateko epea. Apirilaren 3an.

Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien. Keu Agirretxea eta Jon Gurrutxagaren kontzertua. Apirilaren 23an, 18:30ean.

Bestelakoak

Loiu

- > Txoribikers elkartearen bazkaria, Apirilaren 1ean.
- > Loiu VI. Motorren Kontzentrazioa, Txoribikers elkartearen eskutik. Apirilaren 22 eta 23an, herriko enparantzan.

Derio

- > Derio, Euskadi ezagutzen. Apirilaren 23an, 09:00etan, kiroldegian.

Zamudio

- > Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina. Maiatzaren 31 arte, Udal liburutegian.

Larrabetzu

- > BH Karraderan martxa herritarra. Apirilaren 30ean. Izena eman behar da lasterketa@karraderan.org helbidean.

ERREKA
JAT ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate gurtiak
zerbitzu bakar batean
-Aurrekontua duan
-Especialitateak:
umeak

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6



APIRILA

Taileri, 6 (Seminarioaren atzean) **DERIO** 94 406 36 02

ban
BASERRI **ANTZOKIA**

Apirilak 8, 22:00etan

PATXUKO NICE + TALDE GONBIDATUA

(ESNE BELTZA ETA JOSE RIPIAU TALDEEN KIDE OHIA)

Rock mestizajea

Sarrera: doan

Apirilak 21, 21:00etan

MCD+LOS ROÑAS+

EL EXTERMINIO DE LA RAZA DEL MONO

Punk

Sarrera: 10 euro (aurreratua)

12 euro (txarteldegian)

Apirilak 27, 20:00etan

ASH BORER+VANUM

Metala (AAEEBB)

Sarrera: 12 euro (aurreratua)

15 euro (txarteldegian)

Apirilak 29, 22:00etan

TIPARRAKERS+FALTONS

Punk-rock

Sarrera: doan

Apirilak 30, 12:00etan

FLAMENCO ETXEA & ANA SALAZAR

Flamenkoa

Sarrera, txartel-leihatilan

bbk 



STIHLEN BETIKO POTENTZIA, BAITA BATERIAREKIN ERE.

Zure lorategian, jaun eta jabe, edozein erronkaren aurrean.

UDABERRIAN, ESKAINTZA BEREZIAK



YOU RELAX *iMow*®

Belarra mozteko iMow robotak:
Belarra zaindu, kezkarik gabe

VIKING - STIHL taldeko enpresa



BANATZAILE PREMIUN
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com